

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN EZOHIKO SAIOAREN AKTA

2020ko AZAROAREN 5eko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko goizeko hamarrak eta hemeretzi minutu direla, eta Presidente jaunak alde zuzenetik deituta Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, kontseilua eratzeko xedez. Bileran honako hauek hartu dute parte:

Presidentea: Itsazain Ortolatxipi Ibañez jn.

Bokalak:

Eusko Abertzaleak Udal Taldea (EAJ-PNV)

Danel Bringas Egilior jn.
Cristina Azpiolea Veiga and.
Gorka Charte Marín jn.
Jon Carrera Rodero jn.
Alvaro Aresti Orella jn.

Sozialistak Udal Taldea (PSE-EE-PSOE)

Pedro M. Martínez González jn.
Olga Pastor Albizu and.

EH Bildu Santurtzi Udal Taldea

Amaia Guinea Mardones and.
Carlos Sáez Méndez jn.

Elkarrekin-Podemos-Ezker Anitza Equo Udal Taldea

Ainhoa Lopera Corada and.

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi

Teknikaria: Margarita Olabarrieta Sobera and.

Behin-behineko kontu-hartzailearen ordezkari: Juan Ramón Rodríguez García jn.

Idazkari eskuordea: Ricardo Villanueva Puertollano

Presidente jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

**1.- 2020ko IRAILAREN 10eko eta URRIAREN 19ko SAIOEN AKTAK
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

2020ko irailaren 10eko eta urriaren 19ko ezohiko saioen aktak aldeztu aurretik igorri direnez, ez dira une horretan irakurri.

Ez denez horrekin lotutako beste parte hartzerik izan, Kontseiluburu jaunak erabakiari buruzko bozketa egin du.

Horrela bada, Artezkaritza Kontseiluko kideek aho batez erabaki dute 2020ko irailaren 10eko eta urriaren 19ko ezohiko saioen aktak onartzea.

2.- SERANTES KULTUR ARETOAN ETA KRESALA ARETOAN (2021-2022) TXARTELDEGIKO, ATEZAINDEGIKO, EGOKITZE ETA PROIEKZIO ZINEMATOGRAFIKOKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN KLAUSULA JURIDIKO ADMINISTRATIBOEN ETA TEKNIKOEN AGIRIEI ETA ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA, PROZEDURA IREKIAREN ETA PRESAKO IZAPIDEAREN BIDEZ.

Kontseiluburu jaunak goian adierazitako proposamenaren berri eman du, Artezkaritza Kontseiluko kideei aurretiaz helarazitako dokumentazioarekin bat datorrena.

Ordezkariek parte hartu ondoren, Kontseiluburu jaunak erabakiaren bozketa egin du.

Eusko Alderdi Jeltzale eta Euskal Sozialistak udal taldeetako ordezkariek aldeko botoa eman dute (8 boto), Bildu udal taldeak, berriz, kontrako botoa eman du (2 boto) eta Elkarrekin-Podemos-Ezker Anitza Equo Udal Taldeak abstentzioa agertu du. Hortaz, Artezkaritza Kontseiluak erabaki du Serantes Kultur Aretoan eta Kresala aretoan (2021-2022) txarteldegiko, atezaindegiko, egokitze eta proiektzio zinematografikoko zerbitzuak emateko kontratuaren klausula juridiko administratiboaren eta teknikoaren agiriei eta espedienteari hasiera ematea, prozedura irekiaren eta presako izapidearen bidez.

3.- 2020ko IRAILAREN 30era ARTEKO AURREKONTUA GAUZATZEAREN BERRI EMATEA

Kontseiluburu jaunak irailaren arteko aurrekontuaren egikaritzearen berri eman du, bera barne, Artezkaritza Kontseiluko kideei aurretiaz helarazitako dokumentazioarekin bat etorriz.

Gai honekin lotuta inork ez du beste ezer esan. Artezkaritza Kontseilua jakinaren gainean dago.

4.- AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontseiluburu jaunak Autonomiadun Erakundearen jardueri buruzko zenbait konturen berri eman du.

5.- GALDE-ESKEAK

Zenbait galde-eske egin dira, grabazioan jasota eurak.

Saioaren grabazio osoa honako esteka honetan entzun daiteke:
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/FSKjqINZODTslt2>

Jorratzeko beste gairik egon ez denez, kontseiluburu jaunak bilera amaitutzat eman du akta honen hasieran adierazi den eguneko hamaikak eta bost minutu direla. Eta nik, organo honen idazkari eskuordea naizen honek, hau guztiau ziurtatu egiten dut.

OE
Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn.

Idazkari eskuordea
Ricardo Villanueva Puertollano